

• TERMOMETROA •

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Japoniako gazteak suizidioaren eta erreboltaren artean

Aspaldi batean Japonia izan zen kapitalismo ordenatu perfektuaren ikurra. Duela hamabost urte krisiak jo zuen eta orain berriro epelaldi ekonomikoan bizi diren arren, neoliberalismoak langileriaren baitan eragin duen anabasaren eredia da. Gertutik ezagutu beharrekoa.

JAPONIAKO LITERATURA GAZTE eta konprometituaren izarretako bat da Karin Amamiya. Ultraeskuineko rock talde bateko kantari izana, denborarekin ezkerre jo du. Neska honek 32 urtetan gazte japoniar askok bizi izan dutena probatua du, prekarietatea, suizidio saioak, atzerrira bidaiak... eta horiek denak azaltzen dira bere idatzietan. Haren berri Frantziako *Courrier International* aldizkariak eman digu, Japon: *La jeunesse se rebelle* dosierra osatzeko bildu dituen artikuluetarik bat berea da eta.

Amamiyak kontatu du 2007ko urtarrilean Tokioko manga kafe batean –hauetan edariez gain Internet zerbitzua eta manga komikiak eskaintzen dituzte egunaren 24 orduetan– hiru egun oso irten gabe zeramatzan gazte bat atxilotu zuela poliziak. Poltsikoan ez zuen 15 yen (euroaren 10 xentimo) besterik. Epel bila sartu eta behin baino ez zuen jan zerbait hiru egunetan. Horrelako kasuak ez dira bakanegiak nonbait, eta sarritan kafe-tegiko nagusiek poliziari deitzen diote bezeroa bertan hilik geratuko den baldurrez.

Gazte asko bizi da kalean ahal duen moduan. 1990eko hamarkadan Japonia geldialdi ekonomikoan trabatuta geratu zenetik, “mirari japoniar” famatuaren oinarriak (familia, eskola, lantokia) haizeak eraman ditu. Lanpostu finkoen urritzearekin gazte asko *freeter*

bilakatu da. *Freeter* neologismoa da: ingelesezko *free* (aske) eta alemanezko *arbeiter* (langile) elkartzetik sortua. *Freeterrek* lan txikiak egiten dituzte bizimodua irabazteko, txapuzak. Japonian lau milioitik gora dira horrela bizi diren 15-34 urte arteko gazteak. Eta antza denez, lantegiek ez dituzte horrelakoak kontratatu nahi.

Baina gainera, lanpostu finkoak ere asko hondatu dira urteotan. Orain enpresek lehengo jendearen erdiarekin atera nahi dute produkzio berdina, ordu gehiagotan beharrean arituarazi eta gutxiago ordainduta gainera. Izan langile finko, aldikako edo *freeter*, gazteek ez dakite dagoeneko zer den egonkortasuna, eta zorrak ordaintzeko buruhauste galantak dauzkate. Bestalde, horiek baino are okerrago bizi dira beste bi gazte talde: ez ikasten eta ez lanean ari ez diren NEET-ak (*Not in Education, Employment or Training*) eta etxetik ateratzen ez diren *bikikomori* marjnatuak.

Gazte guztiok ezinegonean bizi dira, baina haserrea gizartearen edo sistemaren kontra erabili beharrean beren buruak zauritzeko darabilte bortxa. 2002tik hona 20-39 urteko jendeen artean heriotz kausa nagusia suizidioa omen da. Amamiyaren iritzian, gizarteak hala proposatzen baitie: “Gazte ganorabakook: desagertu zaitzete lehenbailehen”.

“Gizartea erotuta dago –idatzi dute


Argazkian ageri direnak Sukiya jatetxeetako langile gazteak dira, Tokioko Shibuya auzoan. Lau milioitik gora dira argazkikoak bezala finkotasunik gabeko lan txikietan ari diren gazte japoniarrak, asko eta asko ondo prestatuak baina lanpostu finko bat lortu ezin dutenak. Soziologo batzuek hitz jokoa egin dute “proletariat” hitzarekin eta diote milioika langile gazteok osatzen dutena “prekariat” dela. Beste batzuek “freeterrak” deitzen diete beharginoi. Bizi baldintza gogor hauetan asko dira une batean edo bestean estualdi handiagora jasan behar dutenak, txirotasunaren marra gaintitu eta karrikan lo egin behar dutenak, edo neguko hotzari aurre egiteko manga edo Internet kafe batean babestea baino helduleku hobirik ez dutenak. Azken hilabeteotan Japoniako komunikabideak hasi dira horien historiak kontatzen, manga komikiatarako gai aproposa eskaintzen dutenak.

langile behartsuen aldizkari batean—. Lan txikien ordainetan gero eta gutxiago pagatzen dute, eta besteak bezala bizitzeko gero eta gehiago egin behar da lan. Eta lan gutxi dagoenez, enpresek gero eta gehiago zurrupatzen gaituzte. Pentsatzen jarrita, gure egoera absurdoa da: astegunetan soldata mixerable baten truke esplotatzen gaituzte, eta jai daukagunean kontsumo gizarteak irensten du gure dirua. (...) Egoera honetan ez daukagu txiroen matxinadari ekin beste biderik, lehertu egin behar dugu gizarteari men egitera garamatzan bizimodu normal hau. Ofentsiban hasi behar dugu eta gure legea ezarri”.

Horrela zabaldu da ezinegona Japoniako gazteen artean. Batean bilkura eta manifestazioa egin dira udalari eskatzeko okerreko lekuan uzteagatik kendutako bizikletak berreskuratzea. Beste batean etxebizitza merkeagoen alde... Mugimendua pixkanaka gorpuztuz joan da Japonia osoan barrena.

XXI. mendeko sindikalgintza

Lan baldintzak Japonia osoan hondatu dira azken urteotan. Berrikitan horri eskaini zion erreportaje nagusia *Asahi Shimbun* egunkariaren *AERA* astekariak. Kontatu du nola 1990etan finantz burbuila lehertu zenetik Japoniako enpresek gero eta gehiago jo duten beren postuak behargin ez titularrez betetzera: aldizkako langileekin



• TERMOMETROA •



bezala azpikontratatuekin. Euskal Herrian ez da asko aipatzen “ez-titular” kontzeptua, baina egokia dirudi.

Krisiaren ondoren, eta globalizazioa deitu den fenomeno unibertsalarekin bateratsu, behin eta berriro aldatu ditu Tokioko gobernuak lan merkatuaren arauak, liberalizazioan koska berriak gaudituz. Azken jauzia 2003an egin zuen: baimendu zuen ordura arte bekatu larria zirudiena, industrian aldizkako langileak kontratatzea. Azkenerako, gaur egun Japoniako lan indarraren herena behargin ez-titularrek osatzen dute.

Horiek sindikatu klasikoaren eskemantik aldeni samarrik zeudenez, itxura berriko erakundeak sortu dira, sindikatu alternatiboak. Hauen ezaugarrietako bi dira erabakiak hartzeko zentrorik ez dutela eta sarean daudela antolatuta.

Mugimendu berri horietako bat da Langile Fisikoen Elkartasuna. Lantoki bakoitzeko sindikatu bere buruaren jabe da eta bere eran egiten ditu negoziaketak. Aldiz, herrialde mailan partikatzen dena informazioa da.

Organizatzeko era honek berekin darama sindikatu klasikoekiko kritika –“haieran aginteak goitik behera funtzionatzen du eta egiturako buruzagiek pixkanaka nagusiekin konplizitatea ehuntzen dute”– baina horretaz gain gertatzen da gaur lan merkatua oso era ezberdinean dagoela antolatuta: langile ez-titularrek ez daukate enpresarekiko leialtasun sentimendurik eta defendatu beharreko interesik ere ez, aurrez irabazitako eskubiderik ez daukatelako. Aldiz, eskubiderik gabeko langileok duintasunak mugiarazten ditu gehiago.

Takeo Kinoshita soziologia irakasleak Japoniako langileen egoera alderatu du iraultza industrialaren garaie-takoarekin. “Kapitalismoaren hasieran langile masa zabala zegoen batere eskubiderik gabe eta goseak hiltzen zegoena. Beren bizi eskubidearen alde egin zuten borroka eta hala sortu zen mugimendu sindikala. Langile ez-titularren sindikatuen jaio-tza ikusita, sindikalgintzaren jatorri garaiez gogoratzen naiz”.

Mugimendu berriok sakeleko telefonoa eta Internet erabiltzen dituzte. SMS bidez egiten dituzte deialdiak. Eta hala bilduko dira, adibidez, Tokioko komertzio-gune batean: “Sukiya jatetxeen aurrean. Ordaindu nahi ez dituzten ordu estrak pagatzea eskatuko dugu eta jende gehiago ez kanporatzea. Halako ordutan Shibuya 109an. Denok etorri”. Bileran atarian eta zutik egingo dute. Nagusiekin negoziatu ondoren, berriro egingo da bilera. Eta puntu.

Kontuok berez lanpostu finkorik ez daukatenei dagozkie, baina oker daude lasai bizi daitezkeela uste duten langile titullarrak. *AERA* astekarian Eri Goto-k idatzi duenez, “komunismoaren mehatxua desagertu zenetik, kapitalismoa itzuli da bere jatorrizko izaerara, hau da, handiak txikia menderatzen duen hartara. Mundializazioarekin enpresek atzerrian aurkitu dezakete eskulan merkeagoa. Herrialde aurreratu-tuetako langileak haiekin daude konkurrentzian. (...) Eta iritsiko da eguna non langile japoniar arruntek elkarri egingo dioten konkurrentzia” ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik
onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik
zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Herrani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

K A L I T A T E A

